

BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

3478

AGINDUA, 2012ko ekainaren 29koa, Osasun eta Kontsumoko sailburuarena, Agiri Klinikoak Balioetsi, Hautatu eta Garbitzeko Batzordea berritzeko dena.

Historia klinikoari eta osasun-arloko paziente eta profesionalek dokumentazio klinikoaren arloan dituzten eskubide eta obligazioei buruzko martxoaren 13ko 38/2012 Dekretuak bere 22. artikuluan Agiri Klinikoak Balioetsi, Hautatu eta Garbitzeko Batzordea sortu zuen, osasun gaietan eskumena duen sailari atxikia.

38/2012 Dekretuaren 22.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, batzordekideak Osasun eta Kontsumoko sailburuak izendatuko ditu, ordezkatzan duten erakundearen proposamena aintzat hartuz.

Horri jarraikiz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.— Agiri Klinikoak Balioetsi, Hautatu eta Garbitzeko Batzordeko kideak izendatu dira, martxoaren 13ko 38/2012 Dekretuaren 22. artikuluan xedatutakoarekin bat, jarraian datozen pertsonak hain zuzen ere:

Osasun eta Kontsumo Sailaren ordezkariak:

- M.^a Ángeles Baile Acosta andrea
- Edurne Blanco Pompeyo andrea

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Erakunde Zentralaren ordezkariak:

- M.^a Teresa Madrid Conde andrea
- Mikel Errasti Gutierrez jauna

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Lehen Mailako Atentzioaren ordezkariak:

- José Ignacio Fraile Esteban jauna.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuari atxikitako ospitaleen ordezkari gisa:

- M.^a Teresa Bacigalupe Artacho andrea.

Euskadiko ospitale pribatuen ordezkari gisa:

- José Agustín Agirre Aranburu jauna
- Nicolás Guerra Zaldua jauna
- Carlos Guevara Enciso jauna

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Artxibo Zerbitzua eta Agiri Ondarearen ordezkari gisa:

– Faustino Ruiz Arnáez jauna

Informatika-sistemen aditu gisa:

– Domingo Acha Quintana jauna

Bigarren artikulua.— M.^a Ángeles Baile Acosta andrea Batzordeko lehendakaria eta Edurne Blanco Pompeyo andrea idazkaria izango dira.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko ekainaren 29a.

Osasun eta Kontsumoko sailburua,
JAVIER RAFAEL BENGOA RENTERÍA.